

# ERREINUAREN BIHOTZEAN. EUSKALDUNEK MADRILEN OSATURIKO ELKARTEA (XVIII.-XIX. mendeetan)<sup>1</sup>

Alberto Angulo Morales  
EHUko Aro Berriaren irakasle titularra

## Laburpena:

Aurkezten ari garen lan hau, gauzatzen ari garen ikerketa zabalago baten lehenengo ondorio bezala ulertu beharko da. Ikerketa horrek duen nahirik inportanteenak zerikusi handia dauka Aro Berrian (XVI.-XIX. mendeen arteko garaian) migrazio-prozesuetan aritutako euskaldunen historiarekin. Gaur arte eginiko ikerketetan, euskaldunek jorratutako migrazio-prozesuei buruzko galderarik funtsezkoena bidaiarena izan ohi da. Ikuspuntu honetatik ikusita, ikerketa horietan egiten genituen galderarik inportanteenak dira nolako migrazio-prozesuak ziren, nora abiatzen ziren, eta zeintzuk izan ohi ziren aurkitzen zituzten arazoak (dirua, hizkuntza...). Elkarteak izango dira normalean arazo hauei guztiei emandako erantzunik ohikoena; hauek ikertzeko euskaldunek sorturiko elkarte batez jardungo dugu: Madrilen sortu zutena alegia.

## Abstract:

In this article we will present the first glimpses of a larger research project we are involved in. The principal aim of this project is to reflect upon some aspects about migrations from the Basque Country abroad during the 16th-19th centuries. So far, the questions that historiography has made about this topic linked mostly with the travel. From our perspective, we will highlight other questions as the way migratory processes were performed, the destinations of the migrants, and the problems they use to have (to finance the travel and settlement in the new land, the problem of the language and others). The creation of associations used to be one of the most usual answers to face these problems; we will focus on one of the most important Basque associations of this time: the one created in Madrid.

## Gako-hitzak / Key Words:

Emigrazioa / Elkarte etnikoak / Kofradiak / Madril / Arantzazu

Emigration / Ethnic associationism / Confreries / Madrid / Arantzazu

-----

Une gehienetan, galdera nagusiak prozesu migratzailearen izaeraz berba egiten zuen eta askoz gutxiago ikertzen genituen<sup>2</sup> prozesu historiko honen eragina eta ondorio

<sup>1</sup> Ikerlan hau Euskal Herriko Unibertsitateak finantzaturako ikerketa-proiektu bati dagokio ("Emigración y devoción: los individuos y las congregaciones de naturales vasconavarros (siglos XVI-XIX)", EHU 06/04).

<sup>2</sup> COLÁ Y GOITI, José; *Euskal naparren joera edo emigrazioa*, Donostia, Euskal Editoreen Elkarte, 1988. USUNARIZ GARAYOA, Jesús María; *Una visión de la América del XVIII: correspondencia de emigrantes guipuzcoanos y navarros*, Madril, MAPFRE, 1992. FRÍAS, Susana R. eta GARCÍA BELSUNCE, César A.; *De Navarra a Buenos Aires, 1580-1810*, Buenos Aires, Instituto Americano de Estudios Vascos, 1996. ESCOBEDO, Ronald, ZABALLA, Ana de eta ALVAREZ, Oscar (Eds.), *Emigración y redes sociales de los vascos en América*. Leioa, UPV, 1996. ARAMBURU ZUDAIRE, José Miguel; *Vida y fortuna del emigrante navarro a Indias (siglos XVI y XVII)*, Iruñea, Nafarroako Gobernua, 1999. Eta egile berberak eginiko beste

historikoak. Orain, galderaz aldatzen ari garen neurrian, bai helburu bai metodo ezberdinak erabili beharko ditugu. Ikerlan honen ikergai nagusiak zerikusirik izango du beste prozesu batekin: migrazio haietako partaideek (heldu edo etorri berriak izenarekin identifika ditzakegunak) Madrilen bertan sortutako elkarte babeslearen zutabe historikoekin. Bidaia egin ondoren, nolakoak ziren Euskal Herriko lurraldeetatik heldu berri haien lehenengo harremanak, nortzuekin egiten zituzten gehienbat, Madrilen bertan osaturiko elkarte babesle baten jaiotza eta erakunde horri emandako betebeharrak nola zabaldu ziren. Mundu berri batera helduak zirenek beren historia pertsonala zein taldearena baliabide batzuek profitatu behar zutela bazekiten eta haietako bat, ez bakarra baino bai indar handikoa, elkarte babeslea izango zela ados zeuden. Madrilgo kasua aztertu baino lehen, komeni da XVI. eta XVII. mendeetako Erreinu Hispanikoan asmatutako beste elkarte batzuei gainbegiratua botatzea.

## 1.- Aro Berriaren euskaldunen ermandadeak

Bagenekien, Indietara zuzenduak, Sevillan bertan XVI. mendean euskaldun batzuek historikoki izen handiko ermandade bat sortu egin zutela, “bizkaitar” izengoitia profitatuz. Hurrengo bi mendeetan, Indietako hiriburu gehienetan antzekoak ziren beste elkarte asko (“Aranzazu” izenarekin) sortuz joan ziren<sup>3</sup>. Hasieran, bai Indietan bai Espainiako hegoaldean (Sevillan edo Cadizen, Aro Berriko Indietara bidaia egiteko portu bakarrak zirenak) sorturiko elkarte hauei buruzko ikerketa bat egin nahi genuen. Baina denboraren poderioz, ermandade hauen bizitzak euskaldunek eginiko migrazio-prozesuei buruzko ikuspuntu berri bat emango digula konturatu bezain laster, Espainiako bihotz administratiboan aurkitu genuen beste elkarte batekin harreman estuak izango zituela pentsatu genuen.

Indietara abiatutako euskaldunek bazuten lehenagotik eskarmentua; izan ere, Erdi Arotik itsasoko merkataritza-bideei jarraituz Gaztela osoan zehar eta Mediterraneoan zehar ere merkataritza eta garraiolari euskaldunak aurki ditzakegu<sup>4</sup>. Talderik handiena ez bazen ere, emigratzaileen artean, XVI. mendeko euskaldun haien egoera politikoa, soziala eta ekonomikoa oso ona izan zen. Emigratzaile euskaldunak hamabosgarren mendetik (Europar, Brujaseko Kontsulatuan, eta Iberiar penintsulan, Sevillan) kokatzen ari ziren hirietan migratze hauetako partaideen beharrak hobetzeko mota askotako ermandade edo elkarteak sortuz joan ziren. Erakunde haien helbururik garrantzitsuenak etorri berrien arazoak konpontzearekin erlazionatutakoak ziren. Hasieratik, emigratzaileekiko elkartasuna izan zen helbururik behinena.

Baina, aldi berean, zabaltzen ari zen munduko hainbat bazterretan kokaturik zeuden talde emigratzaileek hausnarketa sakon bat egin behar izan zuten. Migratze haietako partaide askok bazekiten inoiz ez zirela itzuliko beren jatorrizko herrira edo zorionekoak izatekotan denbora luzea itxaron beharko zutela. Egoera horri aurre egiteko asmoz, migratzaile gehienek —beste jatorri batzuetakoek egiten zuten moduan— argi eta garbi ikusten zuten leku berrian izango ziren bitartean beren buruak eta diru-poltsak babestu beharko zituztela. Zer gertatuko zen Indietan edo Espainiako hegoaldeko hiri batean hil egiten baziren? Nork hartuko zituen

---

lana: «La emigración vasca a América en la Edad Moderna. Balance historiográfico», in ALVAREZ GILA, Oscar eta ANGULO MORALES, Alberto (arg.); *Las migraciones vascas en perspectiva histórica (siglos XVI-XX)*, Bilbo, Euskal Herriko Unibertsitatea, 2002, 13.-50. or.

<sup>3</sup> LUQUE ALCAIDE, Elisa; *La cofradía de Aránzazu de México (1681-1799)*, Iruñea, Eunat, 1995. Azken urteotan. ALVAREZ GILA, Oscar eta ARRIETA ELIZALDE, Idoia (Arg.), *Las huellas de Aránzazu en América*. Donostia, Eusko Ikaskuntza, 2004.

<sup>4</sup> PRIOTTI, Jean Ph.; *Los Echávarri: mercaderes bilbaínos del Siglo de Oro. Ascenso social y económico de una familia*, Bilbo, Bizkaiko Foru Aldundia, 1996. INCLÁN GIL, Eduardo; «“El dinero de la mar”: el comercio de las costa vasca con Europa durante los siglos XIX al XVI», in Ernesto GARCÍA FERNÁNDEZ (Arg.), *Bilbao, Vitoria y San Sebastián: espacios para mercaderes, clérigos y gobernantes en el Medioevo y la Modernidad*. Bilbo, Euskal Herriko Unibertsitatea, 2005, 17.-78. or. MAURO, Frédéric; «Merchant communities, 1350-1750», in James D. TRACY (Arg.), *The rise of Merchant Empires. Long-distance trade in the Early Modern World, 1350-1730*, Cambridge, Cambridge University Press, 255.-286. or.

haien negozioiak arazoak sortuz gero? Jatorrizko lurraldetik urrun dauden gizabanako hauek senitarte eta auzokideen laguntzaz baliatuko ez zirela ikusten zuten neurrian, beste laguntza-tresna batzuk beharko zituztela ulertu zuten eta, hasiera-hasieratik, gogo handiz ekin zioten elkarte berriak eraikitzeari.

Zer elkarte mota aukeratu zuten? Garai hartan oso arrunta zena, Elizaren babesaz baliatuz, ermandadeak (kofradia eta kongregazioak), jaioterrikoak bezalakoak, gehienbat erabili zituzten babesa eta elkartasuna jorratu ahal izateko. Nortzuk elkartzen ziren ermandade haietan? Edo, beste era batera esanda, nongoak ziren ermandade haietako partaide euskaldunak? Eredu bat baino gehiago aurki ditzakegu (Gipuzkoa eta Bizkaia, biak Arabarekin, hirurak Nafarroako Erreinuarekin edo Frantziako Monarkiako Lapurdirekin eta, konplexuena, hirurak —Gipuzkoa, Bizkaia eta Araba— Nafarroa eta Kostaldeko Lau Hiriak —gaurko Santander—) baina guztietan gipuzkoarrak eta bizkaitarrak daudela begi-bistakoa da. Hiritar erakundeak edo elkarteak izan ohi zirela beste ezaugarri komuna da. Guztien artean ditugu: Sevillakoa (1540an sortua, “Congregación de los Vizcaínos” edo “Nuestra Señora de la Piedad”), Cadizekoa (1626tik “Cofradía del Cristo de la Humildad y Paciencia”), Madrilgoa (1684. urtetik sortua eta 1715ean Erregearen Babesa lortuko zuena), Limakoa (1612koa “Hermandad Vascongada de Nuestra Señora de Aranzazu”) eta Espainia Berrikoa (“Real Congregación de Nuestra Señora de Aránzazu”, 1681ean sortua, frantziskotarren komentuan).

Elkarte hauen alboan, zentzu erlijioso hutsa ez zuten beste erakundeak ere osatu zituzten, besteak beste, Bizkaiko Nazioaren Kontsulatua (XV. mendean Anberes hirian sortua izan zena)<sup>5</sup>, Cadizeko bizkaitar pilotuen eskola (1477an sortua eta 1583an desagertua)<sup>6</sup> edo Valladolideko Done Petriren kapera (1569an sortua). Valladolideko proiektuaren funtziorik garrantzitsuena Erret Kantzelaritzaren epaitegietan jorratutako auzietan aritzen ziren bizkaitarrei laguntza ematean zetzan. Adibide honi dagokionez, XVI. mendearen bukaeran Bizkaiko autoritateek<sup>7</sup> adostasun osoa erakutsi zuten fundazio hau eraikitzeko<sup>8</sup>.

Elkarte hauetan, bai deboziozkoak bai laikoak zirenetan, ez ditugu euskal herrialdeetako kideak bakarrik aurkituko, baita inguruko herrialdeetako beste partaideak ere.

---

<sup>5</sup> PRIOTTI, Jean-Philippe; «Commerce et finance en Flandre au XV siècle. Les activités de Diego de Echávarri, Consul de la Nation de Biscay», in *Handelingen van het Genootschap Voor Geschiedines*, 132. zk., 1995, 81.-95. or. CASADO ALONSO, Hilario; «La nation et le quartier des Castellans de Bruges (XV et XVI siècles)», in *Handelingen van het Genootschap Voor Geschiedines*, 133. zk., 1996, 63.-77. or. CASADO ALONSO, Hilario; «Crecimiento económico y redes de comercio interior en la Castilla septentrional (siglos XV y XVI)», in Ignacio FORTEA PÉREZ (Ed.), *Imágenes de la diversidad. El mundo urbano en la Corona de Castilla (S. XV-XVIII)*, Santander, Universidad de Cantabria, 1997, 309.-310. or. ANGULO MORALES, Alberto; «En poco tiempo vienen ricos e hazen a sus amos pobres. De factores o encomenderos a protagonistas directos del gran comercio internacional (siglos XV-XVII)», in Ernesto GARCÍA FERNÁNDEZ (Arg.), *Bilbao, Vitoria y San Sebastián. Espacios para mercaderes, clérigos y gobernantes en el Medievo y la Modernidad*, Bilbo, Euskal Herriko Unibertsitatea, 2005, 79-116 or.

<sup>6</sup> GARMENDIA ARRUEBARRENA, José; «Álava en las congregaciones o hermandades vascas fuera de las Provincias», in *La Formación de Álava. Tomo I. Comunicaciones*. Gasteiz, Arabako Foru Aldundia, 1984, 406. or. SANCHO, Hipólito; «Las naciones extranjeras en Cádiz durante el siglo XVII», in *Estudios de Historia Social*, IV, 1960, 639.-877. or. VILLAR GARCÍA, M. B. eta PEZZI CRISTÓBAL, P. (Arg.), *Los Extranjeros en la España Moderna*. Málaga, M. B. Villar, 2003.

<sup>7</sup> Fundazio honen azalpenak 1569ko otsailaren 26 eta 28 egunen arteko aktetan (Tierra Llanazko Erregimentuan, Bilbon) aurki ditzakegu: «Asymismo, se trato y platico de como en la villa de Valladolid, en la yglesia de San Pedro, al presente abia una buena comodidad para se poder hazer una capilla colateral y aquella ser muy neçesaria, atento el mucho concurso de gentes que de nuestra naçion se morian, ende atenta la Real Chancilleria y juez mayor que ende reside». (B)izkaiko (A)giritegi (O)rokorra. (A)tal (A)ministratiboa. (B)iltzar (N)agusiak. 2 Liburua. 52r. Fol.

<sup>8</sup> Bizkaiko Biltzar Orokorrek aktetan paper honetaz informazioak ere zabaldu zituzten. Horrela diote: «Yten, se propuso y conferio que en la yglesia de San Pedro en la villa de Valladolid avia al presente comodida de que este Señorío de Vizcaya villas e çiudad hiziesen una capilla con lateral, y aquella ser neçesaria atento el nucho concurso de jente vizcaina que a la dicha Valladolid acudian mediante la Real Chançilleria e juez mayor de Vizcaya que ende residian y los que morian se enterraban no conforme y como se requeria». (G)ernika (A)giritagia. (B)iltzar (O)rokorra (1536-1571). 1569ko ekainaren 5 eta 6a. 242r. fol.

1613. urtean sorturiko “Hermandad Bascongada de Nuestra Señora de Aránzazu” elkarteko partaideen artean arabar, bizkaitar eta gipuzkoarren alboan Nafarroako Erreinukoak ere agertzen zaizkigu eta, gainera, Kostaldeko Lau Hirietakoak ere (Laredo, Castro, Santander eta San Vicente de la Barquerakoak)<sup>9</sup>. Cadizeko “Cristo de la Humildad” izenarekin osatutako elkarteak hiru herrialde euskaldun eta nafarrak ere onartzen zituen. XVII. mendean, Mexikoko Jesuseko San Filiperen elizan, Arantzazuko Ama Birjinaren debozioaren menpean zegoen elkartean, hilarri zahar batean hurrengo irakur dezakegu: «Capilla de la milagrosa imagen de Nuestra Señora de Aránzazu y entierro de los hijos y naturales de las tres provincias de Vizcaya y reino de Navarra, de sus mujeres, hijos y descendientes»<sup>10</sup>. Lapurdiko emigratzaileei buruzko oharra 1561eko Sevillako Kongregazioan bakarrik agertzen zaizkigu<sup>11</sup>.

Laburbilduz, elkarte hauetan guztietan gipuzkoarrak eta bizkaitarrak beti agertzen zaizkigu eta askoz gutxiago —hurrengo ordenari jarraituz— arabarrak, nafarrak, lapurtarrak eta kantabriarrak. Ez dugu ahaztu behar 1683an nafarrek beren kongregazioa Madril<sup>12</sup> bertan sortu zutela eta Cadizen bertan ere San Frantziskoren ohorean nafarrek aldare ospetsu eta garesti bat eraiki zutela<sup>13</sup>. Madrilgo Loiolako San Ignazioaren Erret Anaidiak jatorriaren aspektua konpondu zuen, zeren partaide guztiak Gipuzkoako, Bizkaiko eta Arabako naturalak edo jatorrizkoak izan beharko zirela adierazi baitzuen<sup>14</sup>.

Madrilgo San Ignazioaren Elkartearen estatutu edo arautegien arabera, hiru herrialdeetan (Bizkaian, Gipuzkoan eta Araban) jaiotakoek gain, onartuak izango ziren<sup>15</sup> ere toki hauetan jaiotakoak: «En alguna de las mismas, casas solares, mayorazgos, patronatos y otras posesiones de honor, heredadas por derecho de sangre, aunque sus padres vivan o hayan vivido en los diferentes reinos, provincias y dominios de España. Y a la vez que calificaron de oriundos a todos los que por sus ascendientes de línea paterna acreditaran tener su origen en cualquiera de las dichas Provincias, añadieron la declaración, en cuanto a los que descendieran de ellas por línea materna, que fuera del cuarto grado, ya no se les consideraría hábiles para ser admitidos en la Congregación». Hiru herrialdeetan jaiotakoak zein beren jatorria frogatzen zutenak ere onartuak izango ziren. Emigratzaileak ere euskalduntzat hartuak izango zirela begi-bistakoa zen. Adibidez, Albako eta Infantadoko dukeek elkartearen prefektua izateko ohorea, Arabako txandaz profitatuz, eskuratu zuten XVIII. eta XIX. mendeetan. Egoera horrek goi-mailako abantailak eman zizkien Madrilera etorri berriak ziren emigratzaileei. Espainiako “etxe noble handiek” elkarte horretako partaide izanez gero, aukera eta zerbitzu gehiago eskuratu ahal izango zituztelako.

---

<sup>9</sup> Lima San Frantziskoren komentuan elkarte honen egoitza (Santo Cristo eta Aranzazu kaperan) GARMENDIA ARRUEBARRENA, José, «Alava en las ...», *op. cit.*, 405. or..

<sup>10</sup> *Ibidem*. XIX. mendearen erdialdeko liburu batek: *Constitución de la Ilustre Hermandad Vascongada de Nuestra Señora de Aranzazu*, Lima, L. María Masiassen Argitaletxea, 1858.

<sup>11</sup> GARMENDIA ARRUEBARRENA, José, «Documentos inéditos de la Congregación de los Vizcaínos en Sevilla (1540)», in *Boletín de la RSBAP.*, XXXV. urtea, 3-4 koaderno, 1979, 435. or.

<sup>12</sup> SAGUES AZCONA, Pío; *La Real Congregación de San Fermín de los Navarros en Madrid (1683-1961)*, Madril, Canales, 1963. CARO BAROJA, Julio; *La Hora Navarra del siglo XVIII (personas, familias, negocios e ideas)*, Iruñea, Príncipe de Viana, 1969. MARTÍNEZ DEL CERRO GONZÁLEZ, Victoria E.; «Trabajar en red: la colonia de navarros y vascos en la economía gaditana de la segunda mitad del siglo XVIII», in Rafael TORRES SÁNCHEZ (Arg.), *Capitalismo mercantil en la España del siglo XVIII*, Iruñea, Nafarroko Unibertsitatea, 2000, 71.-106. or. MARTÍNEZ DEL CERRO GONZÁLEZ, Victoria E.; *Una comunidad de comerciantes: navarros y vascos en Cádiz (segunda mitad del siglo XVIII)*, Sevilla, Junta de Andalucía, 2006.

<sup>13</sup> GARMENDIA ARRUEBARRENA, José, «Alava en las ...», *op. cit.*, 405. or.

<sup>14</sup> ANGULO MORALES, Alberto, «La Real Congregación de San Ignacio de Loyola de los naturales y originarios de las tres provincias vascas en la corte de Madrid (1713-1896)», in Amaya GARRITZ (Koord.), *Los Vascos en las Regiones de México. Siglos XVI-XX*, México, Universidad Autónoma de México, 1999, 15.-34. or.

<sup>15</sup> GARMENDIA, José, , «Alava en las ... », *op. cit.*, 426. UHAGON Y GUARDAMINO, Francisco; *Don Agustín de Montiano y Luyando, Primer Director de la Real Academia de la Historia. Noticias y documentos*, Madril, Real Academia de la Historia, 1926.

Oro har, Espainiako Inperioaren bazter guztietan (bai penintsulan bai Indietan) emigratzaile euskaldunek mota honetako elkarteak sortu egin zituzten. Egitasmo honen asmorik handienak eta aipagarrienak zerikusi handia zuen babesarekin. Leku berri eta ezezagun batera heldu bezain laster familiaren laguntzaz baliatzen ez baldin baziren, jatorrizko elkarte hauetara hurbiltzen ziren. Beraietan babesa, sustapena eta laguntza aurkitu nahi zituztenak Madrilera heldu bezain laster (lehenago Cadiz, Sevilla, Lima edo Mexikon gertatu zen bezala) kongregazio honen partaide bihurtu nahian aritzen ziren. Alabaina, migrazio-prozesu hauetan parte hartzen zuten euskaldun guztiek ba ote zuten kongregazio haietako kide izateko aukerarik? Eskura ditugun datuen arabera, erantzun bakarra dago: etorri berri guztiek ez zutela aukerarik.

## 2.- Madrilgo elkarteak

XIX. mendearen bukaeran, Madrilgo San Ignazioren elizari buruzko deskribapen batean hurrengo pasartea aurki dezakegu: «Desde aquellos días tan remotos, hasta la fecha, ha venido la Congregación socorriendo en sus domicilios de Madrid á los pobres y enfermos necesitados, hijos de las Provincias Bascongadas, procurando el posible alivio á los asilados en los hospitales, y aun á los que, en presidios y cárceles, fueron relegados á sufrir la consiguiente expiación de sus delitos. La Congregación ha gastado innumerables sumas, un verdadero capital, en facilitar á los enfermos pobres, medios para gozar del beneficio de las aguas medicinales, y á los pobres sanos para ganarse honradamente el sustento ó para adelantar en su profesión ó carrera; ha atendido las justas reclamaciones de los desvalidos y menesterosos y proporcionado el regreso á la patria á cuantos, por azares de la suerte adversa ó por amor invencible al terruño natal, han querido regresar desde la corte al solar bascongado»<sup>16</sup>. Elkarte horren dokumentazioa (aktak eta beste agiriak) desagertu dira. José Ignazio Tellechea Idigoras eta Jesús Garmendia Arruebarrenaren ikerketen bitartez, badakigu 1936an elkartearen egoitza errepublikanoek okupatu egin zutela eta elkartearen dokumentazioa desagerrarazi. Beraz, elkarte honen historia egiteko XVIII. eta XIX. mendeetan argitaratutako agiri eta liburuez profitatu beharko dugu.

XIX. mendearen bukaeran, elkarte honetako bazkideek gehienbat kongregazioak “Provincias Bascongadas” haietatik Madrilera etorritako emigratzaileei emandako laguntza gogoratzen zuten. Pobre eta gaixoei (etxeetan edo beste lekuetan batzuetan, adibidez, ospitaleetan eta espetxeetan) laguntza materiala eta espirituala ematen zieten. Baina,aldi berean, gaixorik ez baldin bazeuden, Madrilera etorri berriei aparteko beste laguntza bat ematen zietela aldarrikatzen zuten: ogibide on bat aurkitu edo, gehienbat, «adelantar en su profesión o carrera». Azkenengo laguntzak zerikusia zuen beren jatorrizko herrialdera bueltatu nahi zutenekin. Oro har, elkarte honek —gutxienez, XIX. mendearen bukaeratik osatutako oroimen historikoaz baliatuz— euskaldunen arteko elkartasuna landu eta aberastu nahi izan zuen. Madrilen bertan ari zirenek oso garbi ikusten zuten emigratzaile haien etorkizuna arazoz beterikoa izango zela eta, logikaz, beraiek zuten gizarte-mailaz profitatu nahi zuten funtsezko laguntza emigratzaileei eman ahal izateko.

1893an *Euskal-Erria* aldizkarian ere Madrilgo euskaldunen elkarte honek bazkide berrientzako gonbidapen publiko bat egin zuen. Gonbidapen ofizial horren deskribapena nahiko adierazgarria delakoan, pasarte osoa transkribatuko dugu:

Los hijos y descendientes de las provincias de Alaba, Guipúzcoa y Bizcaya, residentes en Madrid, fundaron hace cerca de tres siglos, en 1713, una benéfica y piadosa Asociación para amparar y proteger a sus paisanos pobres que aquí se

<sup>16</sup> «Los Bascos en Madrid. El Templo de san Ignacio», in *Euskal-Erria*, XXXIX. zk., 1898, 120.-121. or. ALVAREZ GILA, Oscar; «Reflexiones sobre la racionalidad de la emigración y el aprendizaje del “oficio” de emigrante, 1750-1820», in Pilar LATASA (Koord.), *Reformismo y sociedad en la América Borbónica. In memoriam Ronald Escobedo*. Iruñea, Eunsa, 2003, 252.-278. or.

encuentren necesitados y enfermos. Cuantos bascongados de alguna importancia y arraigo, y de deshaogada ó modesta posición, han vivido en Madrid, tuvieron siempre á mucha honra el pertenecer á esta Congregación que, no sólo practica la Santa Caridad, sino que sirve de digno lazo, de cordial unión á cuantos nacieron en aquel noble solar, y que aquí se identifican en tan generoso propósito, sin distinción de ideas ni de clases. El tiempo, con sus vicisitudes, merma naturalmente el número de nuestros consocios; y como el tiempo tambien, con sus exigencias, cada dia mayores, aumenta las necesidades y los necesitados, esta Congregación se ve algunas veces en el caso de hacer un llamamiento á aquellos de nuestros paisanos que, viviendo en Madrid, ignoran que esta Sociedad Benéfica existe, para rogarles que se inscriban en ella y la ayuden á practicar el bien. La Congregación, que lleva una administración severa y al dia, economiza toda clase de dispendios que no vayan directamente al socorro de los pobres; pero no puede economizar el número de éstos, ni regatearles la limosna con que les ayuda. En el año de 1891 socorrió á 375 necesitados, con limosnas en metálico, en sus miserias, enfermedades y viajes á los puertos y establecimientos balnearios, y prestó la asistencia facultativa á muchos de ellos. Para continuar esta obra, no siendo apenas bastantes los ingresos con que contamos, nos vemos en el caso de solicitar la cooperación de todos aquellos paisanos que quieran unirse á nosotros para ayudarnos en la cristiana y consoladora tarea de auxiliar á nuestros pobres. La Congregación, cuando ha pasado por tiempos de ahogo y de penuria, se ha podido salvar por el desprendimiento generoso de algunos bascongados que, en España ó desde América, la han ayudado con sus donativos; pero sin tener que apelar á esos medios extraordinarios, vivirá ahora modesta y desahogadamente, si el número de los Asociados aumenta, como lo esperamos, al hacer llegar esta súplica á manos de los hijos del país euskaro<sup>17</sup>.

Madrilgo kongregazioak XIX. mendearen bukaeran sortutako gogorapenek irudi zehatz bat eman nahi digute elkartearen garrantziaz. 1713. urtetik aurrera Madrilen finkatutako euskaldun gehienek —gutxienez, «de alguna importancia y arraigo, y de deshaogada ó modesta posición»— ahaleginak zabaldu zituzten Madrilera etorri berriei mota askotako laguntzak eman ahal izateko. Ikuspuntu erlijioso batetik bai laguntza espirituala bai materiala ematen zieten emigratzaile euskaldunei baina, beraiek aldarrikatzen zuten bezala, laguntza horren esanahia askoz zabalagoa zela erakutsi nahi izan zuten. Elkarte horrek beste balio bat («de digno lazo, de cordial unión á cuantos nacieron en aquel noble solar») ere bazuela azaltzen zuten. Madrilen bertan bizi ziren euskaldunen arteko elkartasuna indartu nahi zuen beste faktore batzuen gainera (egoera soziala, ekonomikoa, ideologikoa, politikoa, eta abar). XIX. mendearen bukaeran, elkartearen buruzagiak oso kezkatuak zeuden Madrilen bizi ziren emigratzaile euskaldun asko deuseztatzen ari zirelako kongregazioarekin zituzten harremanak. Batasunak indarra ematen zuen eta elkarte horrek babestutako elkartasuna lortu ahal izateko (eta ez bakarrik arlo espiritual batean edo abstraktuan) guztien partaidetza beharrezkoa zen. Askoz gehiago XIX. mendeko gerra karlisten ondorioak kontuan hartzen baldin baditugu, Madrilen bertan bizi ziren euskaldunen egoera eta gehienbat eragin politikoa gutxituz joan zela begi-bistakoa zen. Beste alde batetik, ez dugu ahaztu behar *Euskal-Erria* aldizkarian artikulua argitaratzen zituztenak foruzale amorratuak zirela.

Foruzaletasunetik aparte, gonbidapen honen helburu nagusia Madrilen ari ziren pobreei laguntza ematea zen, eta horregatik dio 1891an 375 behartsuri eman zela laguntza. Baina laguntza ez zen bakarrik materiala, baizik eta gaixorik zeudenei ere osasun-bidaiak eskaini zizkien. Ameriketako emigratzaile euskaldunen laguntzaz ere baliatzen ziren

<sup>17</sup>

«Los Bascos en Madrid. El Templo de san Ignacio», in *Euskal-Erria*, XXVIII. zk., 1893, 252. or. Azpimarratzeak gureak dira.

Madrilgo elkartearen buruzagiak eta gonbidapen honen bitartez mezu bera zabaldu nahi zuten Euskal Herriko hiru herrialdeetatik. Ohikoa zena, 1713tik aurrera, euskomadrildarrek egin ohi zuten moduan XIX. mendearen bukaeran argudio eta tresna berberak erabiltzen jarraitu nahi zutela garbia da<sup>18</sup>.

Duela denbora asko, Julio Caro Barojaren *La hora navarra del siglo XVIII* liburuan, Madrilen bertan nafar batzuek antolatutako elkarte bati buruzko albiste zehatzak ematen zituen<sup>19</sup>. Geroago, Pio Sagües Azconak, kongregazio honetako agirizaina izan zenak, elkarte honi buruzko liburu interesgarri bat atera zuen<sup>20</sup>. Ikerbide horretatik jarraituz, nik neuk liburutegi batean aurkitutako liburu interesgarri baten bidez, Madrilen bertan euskaldunek eginiko “Real Congregación de San Ignazio de Loyola de los Naturales y Originarios de las Tres Provincias Vascas” ermandade honi buruzko ikerlan txiki bat egin nuen<sup>21</sup>. Ermandade hauek (kofradiak, anaidiak edo “kongregazioak” izenekin agertu bazaizkigu ere, barnealdean helburu antzekoak zituzten), gehienak Madrilen bertan edo Indietako hiriburuetan antolatuak izan zirenak, goi-mailako administrazio postuetan euskaldunek izan ohi zituzten eragina eta boterea ulertzeko tresna garbienak izan zirela garbi dago. Ohiko azalpen historikoez errepikatu egin zuten Euskal Herriko erakunde eta politikariek Aro Berrian izandako arrakasta azaltzeko modukoa zela beraiek Madrilen bertan (Erreinuaren bihotzean) izan zuten eraginaren bitartez. Ikerketa-kasuei begira, nolakoak izan ziren Madrilgo euskaldunek erabilitako tresnak aztertu nahi dugu. Gehienbat, XVII. mendearen amaieratik antolatu egin zuten elkarte bati esker, San Ignazioren Erret Anaidiari esker.

Aldi berean, begiratutako agirien bitartez, Aro Berriko euskaldunek egindako migrazio-prozesuetan ermandade haietako batzuek emandako laguntzak garrantzi handikoak izan ziren. Mesonero Romanosek eginiko ipuin txiki batean, 1838koa, “El recién venido” izenburua zuena, madrildar zahar batek —gortean bizi ohi ziren euskaldunen senitarteko bat izango balitz bezala— hurrengo aholkua ematen zion etorri berriari : «A cada paso que des hallarás gentes de tu condición, de tu país y aun de tu parentela, que en este laberinto de la corte todos vienen a ser confundidos, por lo que habrás oído decir aquel dicho: Madrid patria común, tierra de amigos. Aquí hallarás, en efecto, muchos o más sutiles o más experimentados que tú, que te brindarán con sus consejos, te darán la mano en tus especulaciones y tratos y llenarán con nuevos proyectos tu cabeza de dudas, tu pecho de codicia y de ambición. Huye, amado Juancho, huye esas relaciones peligrosas, o si aprecias tu tranquilidad no des oído a consejos pérfidos de los que sobre tu ruina piensan levantar el edificio de sus medros»<sup>22</sup>. Beraz, migrazio-prozesu hauetan, herrikide baten laguntzaz

---

<sup>18</sup> “Con este fin, tenemos el honor de dirigirnos á V. seguros de que honrará á la Congregación con su nombre. La cuota que los Asociados pagan por cada semestre, es la de cinco pesetas. Como sabemos el amor que profesa V. á la tierra en que nació, y cuánto le interesa todo lo que á su preclaro nombre y patriarcales costumbres se refiere; como es tan glorioso para ella el que sus hijos desgraciados, cuando se ven ausentes, encuentren otros que, en nombre de Jaungoikoa, les amparen; como nada hay allí más patriarcal ni antiguo que el hacer bien á los pobres, creemos que, no sólo le consideraremos en adelante como paisano, sino como hermano, dentro de nuestra Asociación de Madrid. Muy de veras se lo agradecerán muchos pobres, y tambien los que se complacen en hacer á V. esta invitación. El Prefecto, Ricardo Becerro de Bengoa.- Los Diputados de la Congregación, Domingo Ortiz de Zárate, por Alaba; Francisco Ansaldo, por Guipúzcoa, y Pedro Azúa, por Bizcaya.- El Secretario, Domingo Burgoa.- El Contador, Félix María de Eguidazu.- El Tesorero, José de Lara y Viciola.- Los Comisarios, Martín ortiz de Zárate, por Alaba; José Argote, por Guipúzcoa, y Gabriel Lorenzo, por Bizcaya.- El Agente, Domingo de Ellacuriaga.- Los Consiliarios, Manuel Landaluce, por Alaba; Juan María Alberdi, por Guipúzcoa, Ventura Zarraoa, por Bizcaya”. «Los Bascos en Madrid. El Templo de san Ignacio», in *Euskal-Erria*, XXVIII. zk., 1893, 252.-253. or.

<sup>19</sup> CARO BAROJA, Julio; *La hora ...*, op. cit.

<sup>20</sup> SAGUEZ AZCONA, Pio; *La Real Congregación de ...*, op. cit.

<sup>21</sup> ANGULO MORALES, Alberto, «La Real Congregación de ...», op. cit.

<sup>22</sup> *Biblioteca de Autores Españoles. Tomo CC. Obras de Don Ramón Mesonero Romanos. II*, Madril, Atlas Edizioak, 1967, 152. or. ANGULO MORALES, Alberto, «Ayaleses en los siglos XVIII y XIX. Hombres de Corte y Banca en Madrid», in Ernesto GARCÍA FERNÁNDEZ (Koord.), *La tierra de Ayala. Actas de las Jornadas de Estudios Históricos en conmemoración del 600 Aniversario de la construcción de la Torre de Quejana*. Gasteiz, Arabako Foru Aldundia, 2001, 131.-143. or. ANGULO MORALES, Alberto; *Eugenio de*

baliatzea ohiko baliabide bat izango balitz bezala aurkeztu ohi zuten, bai Madrilen bai Indietan. Azalpen hau ez da berria, XVIII. mendearen lehenengo hamarkadetan Frantziatik etorritako gazte askok, Cadizera abiatzen zirenak, gurasoek egindako “instrucciones particulares” direlakoak eskuetan zeramatzen.

Idazki horietan aitak emandako gomendioak biltzen ziren eta beti errepikatzen zuten konfiantza handiko pertsonekin aritu behar zutela (gehienbat bere jatorrizkoekin aritzen baldin baziren aukera gehiago izango zutela arrakasta lortu ahal izateko). Konkretuki, Ambroise Daubentonek “instrucción” haietako bat idatzi zuen eta horretan bere semeari Cadizen bizi ziren beste frantziarrekin harremanetan sartu behar zuela komentatzen zion. Bereziki «le sieur Claude le Maire, banquier, et l'autre le sieur Corrège, négociant, qui sont de très honnetes gens et dont il pourra se servir dans l'occasion»<sup>23</sup>. Daubentonek arrakasta lortzeko biderik zuzenena erakutsi nahi dio bere semeari. Merkatari euskaldun asko beren heziketa profesionala jorratu ahal izateko, adibidez, Baionara abiatzen ziren eta, han bertan, familien laguna edo ezaguna zen merkatari baten etxean urte batzuk pasatu ondoren bueltatu ohi ziren<sup>24</sup>.

Horregatik, mota edo arrazoi ezberdinetako migrazio-bidaiak egiten zituztenek bazekiten berebiziko garrantzia izango zuela helduko ziren lekuetan erkideak aurkitzeak. San Ignazioren elkarteak zuen betebeharrak handi bat urtero azpimarratzen zuen: «Procurar por su parte que fuese efectiva siempre la protección a los hijos de las tres Provincias Vascongadas» eta ahal izango zen laguntza osoa ematea etorri berriek lortzeko «justas pretensiones y el pronto y favorable despacho de los negocios particulares que merecieran su apoyo y eficaz recomendación»<sup>25</sup>. Adibidez, XVIII. mendearen azkenengo laurdenean, bai Eugenio de Llaguno y Amírolak bai Euskalerrriaren Adiskideen Elkarteko kiderik ezagunenek ahalegin asko egin zituzten Madrilgo San Ignazioren Elkarteko kideekin harremanak hobetzek. Llagunok berak elkarte horien arteko antzekotasun ideologiko eta praktikoak nabariak zirela adierazten zuen eta, ildo berberetik, Domingo de Marcoletak Peñafloredari bidalitako gutun batean zioenez, «ellos mismos estan clamando por la union que naturalmente debe haver entre ambas comunidades»<sup>26</sup>. Hurbiltze garbi hori lortu ahal izateko Valdelirios markesa, Gaspar de Munive (1767an Madrilgo elkarteko “prefektua izan zena), eztabaidetan hasi zen. Horrela, 1775. urtearen bukaeran, Manuel de Amírolaren laguntzaz baliatuz, bazirudien bi elkarte horien arteko lotura gero eta estuagoa zela. Beraiek zioten bezala: «Hermandad Propuesta entre los dos cuerpos» lortua zen (hori elkarte horietako kideen zerrendari begiratu bezain laster ikusi ahal izango dugu).

Ameriketan ere esparru ezberdinetan kokaturik zeuden euskaldunak elkartzeko bide aproposa izango balitz bezala bai “Baskongada” bai Madrilgo elkarteak aurkeztu zituzten. Martín de Sarrateak (Buenos Aireseko Baskongadaren ordezkaria) Montehermoso markesari bidalitako gutun batean aipatzen zioenez, «a los Paysanos corresponsales en el Reyno de Chile y las Provincias del Peru pertenecientes a este virreynato, la dignacion de la Real Sociedad, y

---

*Llaguno y Amírola (1724-1799). Una figura emblemática en la difusión y patrocinio de lo vasco y la cultura ilustrada*, Gasteiz, Arabako Foru Aldundia, 1994.

<sup>23</sup> OZANAM, Didier; «L'Instruction particulière” d'Ambroise Daubenton à son fils partant pour L'Espagne», in *Mélanges en l'Honneur du Fernand Braudel. Histoire Economique du monde Méditerranéen 1450-1650*. Toulouse, 1973, 445. or.

<sup>24</sup> ANGULO MORALES, Alberto, *Del éxito en los negocios al fracaso del Consulado: la formación de la burguesía mercantil de Vitoria (1670-1840)*. Bilbo, Euskal Herriko Unibertsitatea, 2000, 150.-158. or.

<sup>25</sup> SAGÜES AZCONA, Pío, *La Real Congregación de ...*, op. cit., 11. or.

<sup>26</sup> (A)rabako (L)urralde (H)istorikoaren (A)giritategia. Prestamero Fondoak. 36 kutxa 14. zk.. Madril. 1775/11/16. LUQUE ALCAIDE, Elisa; «Relaciones interpersonales e institucionales en la Cofradía de Aranzazu», in Ronald ESCOBEDO MANSILLA, Ana de ZABALLA BEASCOECHEA eta Oscar ALVAREZ GILA (Arg.), *Emigración y redes sociales de los vascos en América*. Gasteiz, Euskal Herriko Unibertsitatea, 1996, 455.-466. or. ZABALLA BEASCOECHEA, Ana de; « Los Vascos en México a través de los sermones de la Cofradía de Aranzazu (siglos XVII y XVIII)», in Ronald ESCOBEDO MANSILLA, Ana de ZABALLA BEASCOECHEA eta Oscar ALVAREZ GILA (Arg.), *Emigración y redes sociales de los vascos en América*. Gasteiz, Euskal Herriko Unibertsitatea, 1996, 467.-468. or.



les he recomendado eficazmente el objeto de conmovir el amor Patriótico de los amigos esparcidos en aquellos remotos Payses»<sup>27</sup>. Indietan bizi ziren euskaldunen arreta lortzeko asmo hau, Madrilgo San Ignazioren elkartekideek askotan landu egin zuten. Horregatik, XIX. mendean, elkarte horretakoek sortu eta babestu egin zuten lanpostu berri bat: “Comisario General de la Real Congregación en América”, 1896an Antonio Basagoitik, bizkaitarrak, bete egin zuena. Elkarte horren hasieratik, 1715. urtetik aurrera, bere konstituzioen atal batek adierazten zuen Ameriketara kideak ere izan eta babestu beharko zituztela. Egia esan, ez dakigu zein izan zen Madrilgo elkartearen eraginak baina azkenengo urteotan eginiko ikerketek ematen diguten irudia nahiko adierazkorra da<sup>28</sup>.

Ondorio gisa, begi bistakoa da bai XIX. mendeko euskomadrildarrek elkarte honi buruz emandako irudia edo interpretazio historikoa —nahiz eta foruzaletasunaren arazoa oso hurbil egon zen— bai 1715eko elkartearen konstituzioak agindu zituztenek Madrilen bertan laguntza eta deboziozko antolaketa bat egin nahi zutela. Eredua oso garbia zen, XV. mendetik Europa eta Ameriketako leku anitzetan sorturiko funtzio eta balio ezberdinetako erakunde edo elkarteak antolatzekeo tradizioa mantendu zuten. Gehienbat hiritar munduan sortuak izan ziren horrelako elkarteak; betidanik, eliza katolikoarekin eta kontrarreformaren espirituarekin harreman estuak izan zituztenak. Garibaik XVI. mendean eginiko bidaiaren bitartez Sevillako merkatari euskaldunen egoeraz informazioa badugu. Helburuak, tankerak eta espiritua erakusten dizkigun deskribapen horrek XVIII. mende arte aldaketa gutxi jasan zituen. Gutxienez, garai hartakoek babestutako nahiak eta helburuak antzeko samarrak ziren eta.

Heldu berrien arteko elkarren laguntza, jatorrizko irizpide bat erabiltzearen bitartez, XV. mendetik XIX. mendearen bukaerara arte ikus dezakegula garbi dago. Euskaldunek jorratutako migrazio-prozesuetan erakunde edo elkarte hauen eragina ukazina dela gero eta nabariagoa da. Madrileko kasuan, elkarteko kideak goiko tituludunak, aberastutako merkatari eta bankariak, Borboien Inperioko burokrata zibilak eta militarrek eta Espainiako Elizaren goi-kargudunak ziren (gehienbat, Ameriketako apezpikuak). Hauek, Madrilen edo Inperioren goiko postuetan zeudenek San Ignazioren Erret Anaidian edo euskaldunek osatutako beste batean egon behar zuten. Arlo honetatik, ikuspuntu erlijioso eta ilustratu batetik, laguntza eta deboziozko mezuak zabaltzen ziren bitartean, emigratzaile euskaldunei (arrakasta gutxi izan zutenei) laguntza zehatza ematen zieten. Arrakastadunek behokoak zaindu eta lagundu behar zituztelako argudioak —Eliza Katolikoaren izkribu eta doktrinarekin harreman estuak izateaz aparte— zerikusi handia zuen jatorrizko familia eta komunitateek zituzten egitasmo kultural eta intelektualekin.

Babes materiala zein espirituala eskaini beharko zieten Madrilerara abiatzen ziren emigratzaileei —Mesoreno Romanosek zioen bezala—. XX. mendera arte mantendu egin zen ohitura baten aurrean gaude. Errealitatea bihurtu ez bazen ere, Agustin de Montiano Luyandok nahiko berezia zen proposamen sakon bat zabaldu zuen 1753an. Domingo de Marcoleta bizkaitarrak Montianori laguntza eman arren, egitasmoa ezin izan zuten aurrera eraman. Montianok eskola bat eraiki nahi izan zuen elkarteak zuen etxe batean mutil euskaldunentzat, Madrilen bertan. XIX. mendearen bukaeran argitutako gorespen-hitzaldiak deskribatzen zuenez, erakunde berri honen helburu nagusia hauxe izango zen: «Darles la

<sup>27</sup> ALHA. Prestamero Fondo. 38. kutxa 15. zk.. Buenos Aires. 1787/03/28.

<sup>28</sup> LUQUE ALDAIDE, Elisa; «Relaciones intercontinentales de la Cofradía de Aránzazu de México», in *La RSBAP. y Méjico. IV Seminario de Historia de la Real Sociedad Bascongada de los Amigos del País*, I. lib., Donostia-San Sebastián, RSBAP, 1994, 459.-482. or. GARCÍA AYLUARDO, Clara; «El Milagro de la Virgen : el desarrollo de los vascos como grupo de poder en la Nueva España», in *La RSBAP. y Méjico. IV Seminario de Historia de la Real Sociedad Bascongada de los Amigos del País*. I. lib., Donostia-San Sebastián, RSBAP, 1994, 439.-458. or. GÓMEZ GIL, Ignacio; «Gobernadores del septentrión novohispano, siglos XVII y XVIII: materiales historiográficos», in Amaya GARRITZ (Koord.), *Los Vascos en las regiones de México, siglos XVI a XX*. III. lib. México, Universidad Nacional Autónoma de México, 1996, 99.-100. or. Eta Mexikon aritutako Nemesio de Salcedori buruzko atala: ANGULO MORALES, Alberto; *De Cameros a Bilbao. Negocios, familia y nobleza en tiempos de crisis 1770-1834*; Bilbo, Euskal Herriko Unibertsitatea, 2007. (argitaratzearen datuak)

enseñanza conveniente para su ulterior acomodo ó colocación en la Península y en los dominios de Indias»<sup>29</sup>. Gutxienez Montianoren ideiak elkarte hauekin normalean erlazionatzen ez dugun beste funtzio berri bat eman zion. Madrileran heldutako emigratzaile berrientzat heziketa aproposa eta zuzendua altxorrik handiena izango zela pentsatzen zuen Montianok. Egitasmo honen deskribapenak kokatzeko esparru nagusiak ere ematen dizkigu. Bai penintsulara bai Ameriketara abiatuko zirenei hobeto antolaturiko “emigratzaileen bidea” (XVI. mendetik ezaguna eta jarraitua izan zena) eraikiko zieten.

Heziketari buruzko kezka eta asmo hauek ez zuten ezer lortu 1753an, baina 1775eko akordioagatik (data honetan RSBAPek eta San Ignazioaren Erret Anaidiak batasuna eta anaitasuna akordatu zituzten) madrildarrek Fisika Esperimentaleko eta, geroago, Matematikako katedrak —Bergarako Erret Seminarioan zeudenak— finantzatu egin zituzten. Hau da, Madrileko proiektua ezeztatu eta Montiano hil egin zenetik elkartekideek gogor sinesten zuten heziketa eta ilustrazioaren printzipioetan. Emigratzaileek eta dirudunen semeek (Inperio osoan) heziketa onena lortuko zuten. Bergarako Seminarioak heziketa aproposa emango zien, Madrileko Montianoren asmoak nahi zuen bezala.

Baina 1775. urtetik aurrera Inperio osoan kokaturik zeuden emigratzaile guztien indarrak biltzeko ideia indartu egin zen. Mundu ilustratua, zabala (Borboien Inperioko bazter guztietan), teknikoagoa, aukera anitzeko mundua (negozioetan, bai Sevillan, Cadizen, Madrilan, Liman edo Mexikon), promoziozko gizarte bat (Madril), gizarteak zenbait ikur baloratzen jarraitzen zuen (Ordena Militarretako kideak, titulu aristokratiko bat, eta abar) eta “Ohiko Erregearen Zerbitzuan” egindako migratzaileak Bergaran heziketa aurrean zituzten. Beraz, Madrilgo San Ignazioaren Erret Anaidiko kideek bazekiten hobeto prestaturik izango ziren emigratzaile berriak helduko zirela eta, logikaz, laguntza emateko erraztasun gehiago aurkituko zituzten. Borboien Inperioan emigratzaile euskaldunek (denbora luzean eskarmentuz aberastuak zirenak) anaidia edo elkarte hauen balioa eta funtzionalitatea ikusi eta ulertu zituzten. Egitasmoa lekuz aldatu behar izan zuten (Madriletik Gipuzkoara) eta jatorrizko lurraldeetara bueltatu zutenean, tokiko autoritateek (biltzar nagusiek laguntza eman zuten, edo gutxienez oposizioarik ez zuten jarri) Baskongadako eta Madrileko ilustratuek egindako plangintza onartzeaz gain, beste laguntza material batzuk ere eman zizkieten bie.

Tokiko autoritateen onarpenak, ilustrazio eta artearekin izandako harremanak, migratzaile buruzko kezka, emigratzaileei laguntzeko ideiak Madrilgo San Ignazioaren Erret Anaidiaren aurpegiari buruzko argazki txikiak ematen dizkigute. 1753ko egitasmoaren asmatzailea eta barreiatzailea, Agustin de Montiano eta Luyando, 1752an Madrilgo elkartearen prefektu bihurtu zen. Bizkaitar hori Fernando VI.aren Gaztelako Ganbarako idazkaria zen eta “Real Academia de la Lengua Española”ko kidea ere. 1741etik Montiano “Academia de la Historia” delakoaren sortzailea eta lehenengo zuzendaria izan zen. Agustin de Montianoren espirituak Madrilgo elkartearen eta Baskongadaren nabari da, “novator” edo aurreilustratu batena. Eugenio de Llaguno eta Amírolak XVIII. mendearen bigarren zatian mantendu egin zuena. Aialako pertsonaia hau Montianoren laguntzaren bitartez Madrilan hezi zen. Bai kulturaren arloan (ilustratu amorratu bat bezala) bai Anaidian bai erregearen zerbitzuan egon zen. Berak ahalegin guztiak egin zituen Baskongadak erret izena bere tituluan lortu ahal izateko Nahiko txikia eta ez oso aberatsa zen Arabako iparraldeko haran batetik sortutako emigratzaile hori Montianoren eta Anaidiaren laguntzaz baliatu zen Gortera heldu bezain laster, «para su ulterior acomodo ó colocacion en la Península y en los dominios de Indias».

Madrilgo prefektuen zerrendari begira, Inperioaren administrazio-arlo gehienetan zeuden euskaldunak agertzen zaizkigu. Hau oso normala izango zen, baina gure informazio

---

<sup>29</sup> *Noticia del Origen, Fundación, Objeto y Constituciones de la Real Congregación de Naturales y originales de las Tres provincias Vascongadas establecida bajo la advocación del glorioso San Ignacio de Loyola*, Madril, Tipografía de los Hijos de M. G. Hernández, 1896, 17. or. Emigrazioan sorturiko euskal eskolen egitasmoen inguruan, ikusi O. Alvarez Gilaren lana: “Euskal hezkuntza ikastolak baino lehen. Amerikako euskal ikastetxeak, egitasmo eta errealitatearen artean (XVIII-XX)”. *Uztaro* 69, 2009, 5-22.

mugatuekin, irudi zehatz eta zientifikoa ematea oso zaila egiten zaigu momentuz. Madrilen bertan bizi eta lan egiten zuten beste euskaldunak (gehienbat, XVIII. mendearen bigarren zatitik aurrera) Borboien Inperioaren burokratak ez zirenak (merkatariak, bankariak, “asentistak”, ikasle eta irakasleak, literatoak, margolariak) elkarte honetako kideak izango zirela uste dugu. Kide-zerrendarik ez dugunez, irudi orokorra emateko zailtasun handiak ditugu baina, nafarren kasuek —bai Cadizen bai Madrilen— bide hau irekitzen dute<sup>30</sup>. Merkatariak migraziozko estrategiak izateaz aparte, Anberesen, Sevillan, Salamancan, Toledon, Cadizen, Liman edo Mexikon sorturiko anaidi eta elkarteetan parte hartu zuten, gehienbat Frantziskotar Ordenaren hurbiltasunarekin. Eta, ahaztu behar ez dugun beste informazio bat. Madrilgo anaidiaren sortzaileen zerrendan merkatari (bai Cadizen bai Madrilen) batzuk agertzen zaizkigu<sup>31</sup>.

### SAN IGNAZIOREN SORTZAILEEN ARTEKO MERKATARIAK (1713)

Juan Iñiguez de Betolaza	Langraitz	Araba
Juan Manuel de Unzueta	Durango	Bizkaia
Pedro Matias de Unzueta	Lezama	Araba
José Ortiz de Zárate	Lukiano	Araba
Melchor Antonio de Murga	Murgia	Araba
José de Zuloaga y Sagastiza	Bergara	Gipuzkoa
Domingo de Libarona y Vidaechea	Durango	Bizkaia
Pedro de Libarona y Vidaechea	Durango	Bizkaia
José de Negrete Cano Santisteban	Ranero	Bizkaia

1723an Cadizeko merkatari batek, José de la Quintanak, diru-opari bat eman zion Anaidiari eta, aldi berean, promesa bat. Indietan merkatari horrek zituen “corresponsales” (negozioak aurrera eramateko lagunak, ezagunak, bazkideak, erosleak, saltzaileak, kapitainak, eta abar) izenekoak lanean jarriko zituela<sup>32</sup> ekimen bat egiteko. Lanaren helburua, Ameriketara zeuden euskaldun guztiak Anaidiko kide bihurtzea zen. Quintana, geroago Marina eta Indietako idazkaria izan zen. Bizkaitar horrek Cadizetik bere merkataritzaren bidez Madrilgo Anaidiaren balio eta eragina ikusten zuen. Beharbada berak burokrata bihurtzeko bidean San Ignazioaren Erret Anaidiaren laguntza baliagarria aurkituko zuen. Beste merkatari batzuk laguntzaile gisa agertzen zaizkigu. Adibidez, 1741ean Orozko haraneko Domingo de Arangoiti “Madrilgo auzokideak” —beste daturik ez dugu momentuz— interesik gabeko 600.000 errealeko mailegu bat egin zion Anaidiari. Dirua eta boterea elkar bilatu eta aurkitu ohi ziren. Aialako haranetik Madrilen bertan aritutako euskaldun batzuk merkataritzaren munduan ere aritu ziren eta San Carlos Bankuaren komisionatuek —Gasteiz, Bilbo eta Donostiako ospe handiko hiru merkatari-familiek— harreman estuak zituzten Madrilgo merkatari euskaldunekin<sup>33</sup>. 1811n Vicente de la Torre y Rumoroso bizkaitarra Madrilgo merkataritzaren aritzen zen. Urte hartan, elkarteko prefektu bihurtu zenean, Madrilgo Bost Gremio Handien elkarteko kontularia zen.

<sup>30</sup> AQUERRETA, Santiago; «Emigración y estrategias familiares en el siglo XVIII: La familia Goyeneche», in ALVAREZ GILA, Oscar eta ANGULO MORALES, Alberto (Arg.); *Las migraciones vascas en perspectiva histórica (siglos XVI-XX)*, Bilbo, Euskal Herriko Unibertsitatea, 2002, 55.-72. or.

<sup>31</sup> LATASA, Pilar, «Comerciantes, burócratas y aristócratas en la Lima borbónica: revisión historiográfica», in Pilar LATASA (Koord.), *Reformismo y sociedad en la América Borbónica. In memoriam Ronald Escobedo*. Iruñea, Eunsa, 2003, 227.-252. or.

<sup>32</sup> Madrilen ere artile negozioetan aritzen zirenak aurkitzen ditugu: BARRIO MOYA, José Luis; «La colección pictórica de Don Juan Fernández de Luco, un ganadero alavés en el Madrid de Felipe V (1740)», in *Boletín de la Real Sociedad Bascongada de Amigos del País*, 61-2. zk., 2005, 421.-433. or.

<sup>33</sup> ANGULO MORALES, Alberto; «Los comisionados del Banco Nacional de San Carlos en las capitales vascongadas (1782-1808)», in *Vasconia*, 32. zk., 2002, 305.-320. or. ANGULO MORALES, Alberto, «Ayaleses en los siglos ...», *op. cit.* 131.-143. or.

San Ignazioaren Erret Anaidiaren bazkideak, sortzaileak, prefektuak eta “goi-mailako elizgizonak” Inperioko goi-mailako kargu politikoak, administratiboak eta erlijiosoak elkartzen ziren. Hurbilean, Indietako merkataritza-bideko merkataria eta beste negoziotan (asentistak, bankariak, esportatzaileak eta inportatzaileak) aritzen zirenak agertzen zaizkigu. Inperioko hiriburu nagusi batzuen bitartez (Madril, Cadiz, Lima, Mexiko, Buenos Aires), behatokiak izango balira bezala, inguruko euskaldunen laguntza elkartu nahi zuten. Elkartasun horren helburu praktikoak negoziotara, promozioetara, kargu hobeak edo ezkontza interesgarriak lortzera zabaldu ziren. Anaidiak ematen zituen konfiantzak eta informazioaren balioak eragin handiko sare bat antolatu egin zuten. Bere arau estuek helburu hau ere ondo maneiatzen zuten.

José de la Quintanak, Bizkaian 1680an jaio zenak, 1723an Madrilgo ongileen zerrendan agertzen da. Cadizeko merkataria ospetsu eta dirudun hori Indietan bere merkataritza-negozioak garatzen ari zen. Indietako portu eta hiri ezberdinetan adiskide, herrikide eta senitarteekin antolatutako bere merkataritza-sarea San Ignazioaren Erret Anaidiari eskaini zion, diru-opari batez gain. Cadiz eta Indietatik Inperioko ematen zituen aukerak oso garbi ikusten zituen eta harreman komunak luzatu eta estutu nahi zituen. 1739ko udaberrian haren bizitzak aldaketa sakon bat izan zuen. Juan Bautista de Iturrালের aldi berean, Felipe V.ak Quintana Marina eta Indietako idazkari gisa aukeratu eta izendatu zuen. Madrilgo Gazetak garbi dio «en atención à su satisfacion con que se halla de su experimentado zelo, y amor al Real servicio»<sup>34</sup>. Berrogeita bederatzi urteko gizon hau, merkataria-bizitza luze eta arrakastatsu baten bitartez —bere heldutasuna bukatzeaz zegoen garaian—, ospe handiko kargudun bihurtu zen. Bi urte luzetan zehar Madrilgo Marina eta Indietako idazkariaren abantaila eta eragin politikoaz baliatu zen. 1741eko urriaren 17an, Madrilgo Gazetak berriro informazio zehatza ematen digu. Eskarmentuz betetako bizkaitar honen kargua Jose del Campilloren eskuetan (Ogasun, Gerla, Marina eta Indietako Idazkaritza) galdu zuen baina, Antonio de Sopenarekin egin zuten bezala, ohorezko zulo bat aurkitu zioten: aurrean Indietako kontseilaria izango zen. Bederatzi urte ondoren, Gazetaren nekrologikoetan José de la Quintanaren heriotzaren berria agertu zen. Hirurogeita hamar urteko Monarkiaren zerbitzari amorratu horren bizitzan («en cuyos empleos, como en otros encargos de la mayor gravedad, è importancia, que se pusieron à su cuidado desde el año de 1730, acreditò su mayor zelo, y amor al Real Servicio»<sup>35</sup>) hogeita hamargarren hamarkadatik aurrera halabehararen laguntza aurkitu zuen. Konkretuago, 1734an, Bizkaiko lurraldeen ordezkari gisa San Ignazioaren Erret Anaidiaren prefektu bihurtu zen<sup>36</sup>.

Juan Bautista de Orendain y Azpilicueta (Santiago Ordenako Zalduna, Estatuko Idazkaritzako idazkaria eta ofiziala zen bitartean) Madrilgo Anaidiaren sortzaileen zerrendan agertzen zaigu (1726an “Marques de la Paz” bihurtu ondoren Gipuzkoatik prefektu kargua eskuratu zuen). Sortzaile hauen artean bizkaitar famatu bat ere agertzen zaigu: Sebastián de la Cuadra (Somorrostron jaioa), garai hartan Santiago Ordenaren abitua zeukana eta, aldi berean, Estatuko Idazkaritzaren ofiziala (Orendainen alboan) zena. Denboraren poderioz, Villariaseko markes bihurtu eta Estatuko kontseilari nagusiaren kargua eskuratu zuen (1737an Anaidiko prefektu bihurtu zen). Felipe V.aren garaian Estatuko Idazkaritza José Grimaldo y Gutiérrez de Solórzano (Grimaldoko markesa: 1714-1724, 1725 eta 1726an), Juan Bautista de Orendain y Azpilicueta (Bake markesa: 1724 eta 1726-1734 artean) eta Sebastián de la Cuadra (Villarías markesa: 1736-1746 artean)<sup>37</sup>. Orendainen kasuan eragin

<sup>34</sup> Madrilgo Gazeta. 1739ko martxoaren 10a (Madrilen).

<sup>35</sup> Madrilgo Gazeta. 1750eko ekainaren 6a (Madrilen).

<sup>36</sup> BARRIO MOYA, José Luis; «La biblioteca del caballero bilbaíno Don José de la Quintana, “Del Consejo y Cámara de Indias (1750)», in *Boletín de la Real Sociedad Bascongada de Amigos del País*, 62-2. zk., 2006, 319.-341. or.

<sup>37</sup> Estatu Idazkaritza nagusiari buruzko lan historiokorik inportanteenak: LÓPEZ-CORDÓN, M<sup>a</sup> Victoria; «La Primera Secretaría de Estado: La institución, los hombres, y su entorno (1714-1833)», in *Revista de la Universidad Complutense. Estudios de Historia Moderna y Contemporánea*, XXVIII. lib., 16. zk., 21.-26. or.

handiko karguetan aritu ondoren, prefektu izatearen ohorea eman zioten. Villariáseko markesaren bidea ezberdina izan zen: goiko kargu batera heldu ondoren, sortzailea izan arren, prefektu izatearen ohorea eman zioten (1737.an). Cuadraren beste senide batzuk aurkitzen ditugu elkarte berberean. 1744an Pedro de la Cuadra Aréchaga —Osmako apezpikua (1736-1741) eta Burgosko artzapezpikua izan zena— kide bezala agertzen zaigu eta, 1780. Antonio de la Cuadra (Santiago Ordenako Zalduna eta Ordenetako Kontseiluko Fiskala zen) prefektulanean zegoen.

Fernando VI.aren emazteak, Barbara de Bragantza portugaldarrak, Juan V.a bere aitari bidalitako gutun batzuen bidez “bizkaitarren alderdiaz” hitz garbiak utzi dizkigu. Horrela dio: «Lo que yo siento son las cábalas o partidos que veo van existiendo; y el de los vizcaínos es fuerte, porque cuentan con el ayo del rey, que nunca se unió conmigo, porque lo que quiere es tener él toda la confianza y procura por todos los medios impedir al rey que la tenga conmigo; y le hace al rey demasiada impresión lo que él dice, bien a mi pesar»<sup>38</sup>, eta hamabostaldi bat pasatu ondoren berriro aipatzen zion: «Este marqués de Villarías y sus compatriotas, son los de la cábala, compiten con todos nosotros, entrando vuestra majestad en primer lugar, y de ello temo siempre que haga algún enredo de los que acostumbra; y el ayo que lo patrocina ha hecho tomar al rey tan buena opinión de él y tan mal de todos los otros que es difícil desenredarla»<sup>39</sup>. Villariáseko markesa bizkaitarren alderdi edo fakzioaren burukide gisa aurkezten digu. Garai horretarako, markes hau euskaldun anaidiako prefektu izan zen. Kargu bera eskuratu zuten artean, kronologikoki, bi arabar, Francisco de Aguirre y Salcedo (Montehermosoko markesa, Erreginaren etxezaina, Carlos III.aren “ayó” eta Oñati, Campo Real eta Villamedianako kondea) 1736an eta José María Diego de Guzmán Spínola y Colonna Vélez Ladrón de Guevara (Urrezko Toison Ordenako Zalduna, Espainiako Noble Handia, “Correo Mayor” eta Erregearen Etxezain Handia) 1739an prefektua izan zen. Beste alde batetik, Carlos de Areizaga gipuzkoarra (Calatrava Ordenaren eta Napoliko San Jenaroren abituak zituena, Erregearen “Gentilhombre de Cámara”, “Teniente de Ayo y Primer Caballerizo del Príncipe de Asturias”) 1744an euskaldun anaidiaren prefektu bihurtu zen.

Eragin politikoz betetako soziazibilitatezko esparru honen nahia eta asmoa jatorrizko elkartasunean oinarritzen zen. Errealitatean noraino heldu zen neurtzeko saioa ezinezkoa da, laino gehiegi daude eta. Baina, 1746an Madrilen bertan argitutako *Constituciones de la Real Congregación Nacional de Hijos y Originarios de las tres Muy Nobles y Muy Leales Provincias de Cantabria* liburuan XV. Konstituzioak informazio adierazgarri bat ematen digu:

#### CONSTITUCION XV

Que los Paysanos ausentes puedan valerse de la Congregación, para las dependencias que se les ofrecieren en esta Corte, y se les admitan, y cuiden como se dice.

Considerando el gran numero de hijos, que de las tres Provincias tienen su residencia en diferentes partes de España, y en los demas Dominios de su Majestad, con dependencias, à que necesitan recurrir à esta Corte, como centro de su Expedición; y que valiendose de extrañas inteligencias puede peligrar su credito, y caudales, y el particular merito que adquirirà la Congregación en el reparo de tan pernicioso inconveniente. Es Constitución, que cualquiera natural de las tres provincias, que se hallare en estos Reynos, en los de las Indias, y demàs sujetos al Rey nuestro Señor, pueda valerse del amparo de la

---

Eta, egile berak: «Cambio social y poder Administrativo en la España del siglo XVIII», in José Luis CASTELLANO (Arg.), *Sociedad, Administración y poder en la España del Antiguo Régimen*, Granada, Universidad de Granada, 1996, 116.-117. or.

<sup>38</sup> 1746ko abuztuaren 26an. PINTO FERREIRA, J. A.; *Correspondência de D. Joao V e D. Bárbara de Bragança, Rainha de Espanha, (1746-1747)*, Coimbra, 1945, 381.-382. or.

<sup>39</sup> 1746ko irailaren 9an. *Ibidem*, 395. or.

Congregación, y se admitan sus Poderes para las dependencias, que se les ofrecieren, encargando su solicitud à los Agentes, que tuvieren nombrados, y demàs Congregantes que convenga, por cuyo medio logre el Paysano el consuelo, de que corran por tan afectos Directores sus intereses, y pretensiones. Y teniendo presente para este punto, lo que se previene en el Acuerdo de la Junta, celebrada el dia 7 de Junio de 1722 las cantidades, que para este fin remitiessen à la congregación, se depositaràn en su Tesorería, con las precauciones correspondientes, y distinción de encargos, para que respectivamente se lleve con cada uno de los que fiassen à la Congregación sus instancias, separada, è individual quenta, entregandose para el seguimiento de los expedientes lo necesario à los que practiquen las diligencias; pues finalizadas estas se darà puntual razón à la parte, asi del éxito de su instancia, como del preciso gasto que se ha ocasionado: cuya formalidad, é integridad tiene calificada la congregación en los varios assumptos, que se le han encargado, aun desde los remotos parajes de la América, con remision de caudales de bastante tamaño, para diferentes destinos en estos Reynos.

Y si concluidas las respectivas instancias quisiesen contribuir las Partes voluntariamente con alguna cantidad (por via de agradecimiento) serà limosna para los piadosos fines de la Congregación, respecto, de que ni esta precisa à ninguno à forzosa contribución, ni alguno de los Individuos de ella tiene sueldo, ni ayuda de costa alguna por la practica de diligencias, porque todo se executa por el adelantamiento de la Congregación, alivio de los Paysanos pobres, y mayor culto del Patriarca San Ignacio<sup>40</sup>.

Ordenantza hau arte, logikaz baliatuz, goi-mailako kargu politikoetan zeuden bizkaitar haiek (zein arabarrak eta gipuzkoarrak) harreman estuak zituztela onartzen genuen eta nafarren adibideek ere bide bera erakusten ziguten. Baina Madrilgo San Ignazioen Erret Anaidiak asmatutako eta argitutako konstituzioen ordenantza horrek argi eta garbi erakusten dizkigu elkarte honen funtzio berriak. Bai Quintanak, bai Villariaseko markesak, bai Carlos de Areizagak, Montehermosoko markesak eta beste bazkide askok —elkarte honetako kideak izateagatik— laguntza Madrilera etorri berriei eman beharko zieten, baina, aldi berean, Madriletik urrun aritzen ziren euskaldun guztien “dependencias” ere maneiatu nahi izan zituzten. Anaidiak bere burua negozioetarako bulego bat balitz bezala ulertzen zuen eta, horregatik, bere babesa («pueda valerse del amparo de la Congregación») lortuko zuela euskalduna izateagatik<sup>41</sup>. Gehienbat Indietako emigratzaileek eragin handiko laguntzaile amorratutzat San Ignazioen Erret Anaidia hartzen zuten. Beraz, “bizkaitarren alderdiak” (Bárbara de Bragantzak aipatzen zuena) ez zen bere nahiak aurrera eramateko moduko erakunde edo tresna izango, baizik eta San Ignazioen Erret Anaidia. Elkarte horrek Ameriketara edo Espainiar Inperioaren bazterretan dauden euskaldunei bere eragin politikoa eskaini nahi zien.

“Dependencias” edo negozio haiek mota guztietakoak izango zirela garbi dago. Horrek zera esan nahi du: arazo edo auzi batean sarturik zeudenei, hiri batean kokaturik dauden euskaldunei laguntza ematea, hiru herrialdeetako Biltzar Nagusiek eskatutako mesedeak eta abarrak ere ematea. Dohainik (eskupekoa ere aipaturik dago) lan hauek guztiak egingo zituztela zin egiten zuen Anaidiak. Beraz, herrialdeen arteko tirabirak eta arazo juridikionalak, Inperioaren bihotzetik ikusita, desagertzear zeuden. Inperio osoan zehar

---

<sup>40</sup> *Constituciones de la Real Congregacion Nacional de Hijos, y Originarios de las tres Muy Nobles, y Muy Leales Provincias de Cantabria*. Madril, 1746, 941-981 or.

<sup>41</sup> BARRIO MOYA, José Luis; «La biblioteca de Don Mateo de Norzagaray, abogado de los Reales Consejos en el Madrid de José Bonaparte (1810)», in *Anuario Juridico y Económico Escorialense*, 34. zk., 2001, 843-851.

zeuden euskaldun, erakunde eta elkarte euskaldunek eta jaioterriko erakundeek ere Anaidiaren eta bere kideen laguntzaz profitatu ahal izango zuten edozein helburu lortzeko.

Adibidez, XVIII. mendearen erdialdean bai Espainiako Erregearen aurrean bai Aita Santuaren aurrean Loiolako San Ignazioaren Eskola eraikitzeko (Mexikon) negoziatu behar izan zuten eta, Madrilen, San Ignazioaren Erret Anaidiaren laguntzaz baliatu ziren. Gutxienez, 1753ko urriaren 19an Gipuzkoako Aldundiak Madriletik bidalitako gutun zehatz bat jaso zuten. Gipuzkoako Probintziak eta Madrileko San Ignazioaren Erret Anaidiak bidalitako gutunak prefektuaren sinadura (Andrés de Otamendirena) eta herrialde bakoitzeko diputatuena (Arabatik Miguel de Gamboarena, Bizkaitik Agustín de Montiano y Luyandorena, eta Gipuzkoatik Felipe de Altolaguirrerena)<sup>42</sup> zeramatzan. Mexikoko Aranzazu Kofradiak («establecida por hijos y Originarios de esas tres Provincias, y del Reyno de Navarra»<sup>43</sup>) «San Ignacio de Loyola» izena izango zuen eskola bat egin nahi zuen. Egitasmo horren helburu nagusia «el recojimiento, y educacion de Niñas pobres, y Viudas desvalidas Españolas» oso garbia zen<sup>44</sup>. Lehenengo saioak 1734an egiten hasi ziren. Hogei urte pasatu eta 580.000 peso gastatu ondoren, eskola (gainera, sortzaileek beste 66.000 peso utzita zituzten lehenengo 24 eskolakideen beharrak bete ahal izateko) lehenengo pausoak emateko prest zegoen momentuan, Madrilgo San Ignazioaren Erret Anaidiaren laguntza eskatu zuten.

Bere ordezkariak izateko dokumentazioa («poderes») Madrilera bidali zuten. Ordezkatzeko baimenaz baliatuz Madrilgo Anaidiak beste dokumentuak (eraikuntzaren planoak, eskolaren konstituzioak, eta besteak) Fernando VI.ari aurkezteko jaso zituen. Erregeak ez zuen bere baimena bakarrik eman. Gainera bere babes pertsonala (garai hartan «Real protección» esaldiak esan nahi zuena) ere eman zion. Oso zehatza, jurisdikzionalki edo arazo judizialei dagokienez eskola epaitegi guztietatik libre zegoen eta epailea, une hartatik aurrera, Mexikoko Erregeordetza bakarrik izango zela adierazi zuen Fernando VI.ak. Erregearen onespena eskuratu bezain laster, Madrilgo Anaidiak Erret Zedularen kopiak egin ahal izateko moldiztegiara abiatu ziren. Logikoa, propaganda («para poder estender la noticia de esta grande fundacion»<sup>45</sup>) beti ona izango baitzen bai Mexikon, bai Madrilen bai Inperioko bazter guztietan. Egoera horretatik Madrilgo Anaidiak ere etekinak atera nahi zituen eta Erret Zedulari buruzko berriek Anaidiaren eragina eta erregearen hurbiltasuna erakutsiko zituzten. Haren konstituzioen hamabosgarren atalak zioenez, ezer ez zuten kobratuko (eskupekoa izan ezik) horrelako lana egiteagatik, baina inork ezin zuen beste etekinak ateratzeaz ezer esan. Anaidia negozioaz arduratu ondoren, beronen bukaera onaren prozesu guztien ardura ere hartu eta maneiatu nahi izan zuen.

Gipuzkoako Aldundiak egitasmo honen jakinaren gainean bere burua jarri nahi zuen, eta gutunaren bidez, eskola honetako konstituzioen kopiak bidaltzen zizkieten. Aldi berean, San Ignazioaren Erret Anaidiak bere ikuspuntua erakutsi nahi zion: «Por no dilatar esta noticia, y remision de Ejemplares, omite aora esta Congregacion expresar â V. S. J. cierta idea que en sus Juntas há tratado, y lo continua, dirijida al alivio y acomodo de algunos chicos de esas Provincias, como que aquí ès la escala por donde toman su rumbo muchos, pero lo ejecutará a su tiempo, y en todos està la Congregación pronta â quanto sea del obsequio de V. S. J. deseando que Nuestro señor prospere â V. S. J. dilatados años en las mayores felicidades»<sup>46</sup>. Montianoren ametsa inork ez zuen ahaztu. Gipuzkoako portaera nahiko berezia izan zen. Negozio honetaz 1754ko martxoaren 11 arte ez zuten Biltzar Nagusien aurrean aurkeztu. Betidanik etortzear zegoen emigratzailearen etorkizuna bideratzea goi-mailako helburu bihurtua zen, ondo zaindu beharreko tresna bat izango balitz bezala. Baina ez dugu ahaztu behar «primogenito» eta «segundon» direlakoan arteko komunikazio baten aurrean gaudela.

<sup>42</sup> (G)ipuzkoako (A)giritegi (O)rokorra. JD. IM. 4/3/57 (1753koa).

<sup>43</sup> *Ibidem*.

<sup>44</sup> *Ibidem*.

<sup>45</sup> *Ibidem*.

<sup>46</sup> *Ibidem*. Guk egin dugu azpimarratzea.

Garbi dago emigratzaile garbiak zirenek eta beste interes ezberdinak batzuk zituztenek elkarte honen laguntza erabili zutela helburuak ezberdinak aurreratzeko elkarte honen laguntza erabili zutela garbi dago. Baina aldi berean, emigrazioan zeuden euskaldun hauen batasuna goi-mailako eraginezko tresna zela adierazten digu. XVIII. mendearen hasieratik euskaldun hauek (gehienbat Madrilen bertan aritzen zirenek) Inperioaren etekinak eta promoziozko aukerak ikusi eta erabili nahi izan zituzten. Familia eta herrikidetasunak baliagarriak badira ere<sup>47</sup> ez da benetako erantzuna. Azkenengo urte hauetan —Julio Caro Barojaren *La Hora Navarra del siglo XVIII (personas, familias, negocios e ideas)* liburuari emandako berriz irakurri ondoren— historiagile askok gero eta ozenago aldarrikatu dute Aro Berriko eta XVIII. mendeko gizartea senitarte eta herrikide sareetaz antolaturik zegoela gero eta altuago aldarrikatzen zuten.

Bai zuhaitzak ikusten zituztela baina ez basoa garbi dago. Sare asko aurki ditzakegu eta, gehienetan, antzeko partaideak eta estrategiak ikusiko ditugu. Baina Madrilgo Anaidia honetako kideek oso ezberdina den bestelako irudi bat erakutsi nahi dute: emigratzaile euskaldunek osatutako “lobby” madrildarra. “Ameriketako errutabidea”ri jarraitzeko modukoa zen eskalarik garrantzitsuena Madrila zen (Mesonero Romanosek “El recién venido” 1838ko ipuinean ikusi eta adierazi zuen bezala) eta, ondorioz, Inperio osoaren giltza. Madrileko San Ignazio Deunaren Erret Anaidiko kideek kideak giltza horren jabe (gutxienez, horrela pentsatzen zuten Gipuzkoako Aldundiak eta boteretsuek ere pentsatzen zuten) bihurtu ziren. Oso logikoa zen, oro har, eta aspektu sozialak alde batera utzita, Madrileko Anaidiaren Anaidiko kideak emigratzaile hutsak besterik ez ziren eta, gainera, arrakasta handikoak.

Madrileko euskaldunek eskainitakoa etorkizun on baten ziurtasuna zen. Baina zer eskaintzen zuten? Euskal Herriko agintariei emigraziorako aparteko eredu bat erakusten zieten eta, gainera, eredu berri horren gaitasuna frogaturik zegoen. Inperio osoan zehar zabaltzen zen eraginezko sare bat antolatu zuten, Madriletik zabaldua Ameriketara heltzen zena. Hasieratik, 1713tik, “Indietako Agente” (nafarrek zuten bezala) zuten Anaidian eta, José de la Quintanaren adibideak erakusten digun bezala, Cadiz eta Sevillako euskaldunen laguntza ere. Madrilen, Cadizen, Sevillan, Malagan, Liman, Mexikon eta Inperioko beste hiri askotan zeuden euskaldun gehienek harreman estuak izan zituzten Anaidiarekin.

Emigratzaile euskaldunak bildutako eskarmentuaz profitatu ziren beste egitura bat sortu ahal izateko. Askoz eraginkorragoa, hobeto antolatuta eta eragin handiko antolaketa asmatu eta babestu zuten. XVI. mendetik Garibai<sup>48</sup> bidaiariak utzitako oroitzapenetan lehenengo aztarnak aurki ditzakegu baina XVII. mendearen bukaeratik aurrera Madriletik aberastua izan zen ideia sortu zen. Zehazki, 1683an, Bizkaiko Jaurerriak, Araba eta Gipuzkoako Probintziek Gaztelako Kontseiluari eskaera berezia egin zioten. Gortean zegoen “Hospital Real de San Antonio de los Portugueses” bertan herrialde horietatik Madrilerara heldutako mutilak zaintzeko eta laguntzeko (Erret Armadara bidali ahal izateko) kongregazio bat egin nahi zuten. XVIII. mendean osaturiko San Ignazioren Erret Anaidiaren lehenengo egitasmoa izan zen<sup>49</sup>.

1683an sortutako proiektu honen helburuak XVIII. eta XIX. mendeetan mantendu ziren. Atzealdean agertzen zaizkigunak nahiko bereziak dira; izan ere, Euskal Herriko buruzagiek 1753an Madrilgo Anaidiko agintariek aipatzen zieten argudioa oso ondo ezagutzen zuten. Emigratze historikoen disfuntzioak konpondu nahi zituzten. Ideia Euskal

---

<sup>47</sup> ALVAREZ GILA, Oscar eta RUIZ DE GORDEJUELA, Jesús; «La emigración como estrategia familiar: encartados y ayaleses en México y América, siglos XVIII y XIX», in Amaya GARRITZ (Koord.), *Los Vascos en las Regiones de México. Siglos XVI-XX*, México, Universidad Autónoma de México, 1999, 99-112.

<sup>48</sup> GARMENDIA ARRUEBARRENA, José; «Sevilla en las Memorias de Garibay», in *Euskalerrriaren Adiskideen Elkartea*, 45. urtea, 3-4 koaderno, 1989, 611.-615. or. GARMENDIA ARRUEBARRENA, José; «Algunos vascos en Sevilla en el siglo XVI», in *Euskalerrriaren Adiskideen Elkartea*, 59-2. zk., 2003, 678.-684. or.

<sup>49</sup> (A)giritegi (H)istoriko (N)azionala. Consejos Suprimidos. Consejo y Cámara de Castilla. Legajo 10.886.



Herrian bertan sortua izan arren, dinastia berri bat heldu zenetik (1700-1714) beste egileen esku geratu zen: emigratzaileen esku eta buruetan. Eta, emigratzaile euskaldun hauek, oro har, komunean zuten ezaugarri bakarra familia guztietan bigarrenak (“segundones”) zirela esan behar dugu. Maiztergoaren eraginak eta familien barnealdean eginiko akordioak migratzeak egitera bigarrenak bidaltzen zituztela garbi dago<sup>50</sup>.

Miguel Jose de Olaso gipuzkoarrak XVIII. mendearen bigarren zatian “Disertación sobre la educación de los hijos y ciertas cuentas” idazkian seme-alabak hezteko ilustratu baten irudia erakusten digu<sup>51</sup>. Agiri horren hasieran hau irakur dezakegu: «En el arranque del manuscrito se dice que: «Hemos de suponer, como cosa sin disputa, que la obligación de educar y dar carrera a los hijos, es una de las mas esenciales que tienen los Padres: que en falta de estos deben desempeñarla sus Primogenitos: que de su logro redundan honor en los Padres, en los hermanos, y lustre y combiniencia en las familias; de tal modo que quando la ley no obligase a los hijos mayores a contribuir con todo su poder a esta ventaja, lo dicta la razon de un modo tan claro, que no puede ocultarse ni a las mas escasas luces: porque a la verdad, fuera de el honor, que acarrea, son por lo comun los segundones bien empleados, el animo y socorro de los mayores y de sus hijos, de modo tal, que apenas habra casa ilustrada que no deba su esplendor, y haun mas de sus conveniencias, a esta suerte de segundones»<sup>52</sup>.

Akordio edo konponketa pribatu horretan “etxe ilustratuari” buruz agertzen zaigun azalpena nahiko adierazgarria da. Miguel de Olasok Munibe familiarekin (Peñafloridako kondeak) izandako harremanak, Euskalerrriaren Adiskideen Elkarteko partaidetzak<sup>53</sup> eta Gipuzkoako jesuiten “temporalidades” direlakoan arduraduna izateak<sup>54</sup> hobeto erakusten digute Olasok zuen “etxe ilustratuaren” babesari buruzko ideia. 1769tik aurrera Bergarako Erret Seminarioak izango zuen eragina Olasok aurreratzen zuen. Euskal Herriko bigarrenak hezteko modukoa izango zen elkarte baten ideia Madrilen sortua izan zen eta ilustratu euskaldun askok bai arlo pribatuan bai publikoan erabili nahi zuten.

Prozesu honen alderdi batzuk ikusi ondoren, begi-bistakoa da Madrilera eta Inperioko zenbait lekutara abiatutako XVIII. mendeko emigratzaile euskaldunak (gehienak, mota askotako familietako bigarrenak), Olasok uste zuen bezala, etorkizun hobe baten jabe eta giltza bihurtu zirela. Gutxienez, beraiek egoera honetaz jakitunak zirela eta aurrera eraman ahal izateko saio handiak egin zituztela historikoki onar dezakegu. Inperioaren bihotzetik sare handi eta eraginkor bat atera nahi izan zuten eta emigratzaileen jatorrizko agintariei eskaini nahi izan zieten. Beste era batera esanda, Inperioaren eskalan bigarrenen eta oinordekoen arteko solasaldi berri baten aurrean gaude. Proposamen hauek, egiazkoa da, Euskal Herriko agintarien eskuetatik gero eta urrunago zeuden. Horrek hemen aipaturik bakarrik utzi nahi ditugun beste ondorio batzuk ekarriko ditu.

Eugenio de Llagunok, Madrilera Anaidiko bazkidea zenak eta Euskalerrriaren Adiskideen Elkartearantz Erregearen babesa lortu nahi zuenak, une askotan gorriak ikusi zituen. Adibidez, Peñafloridari bidalitako gutun batean horrela zioen: «No importan cosa alguna a la Sociedad, ni alteran en nada sus estatutos, pues reducen a omitir las expresiones que den a entender desea la Sociedad mezclarse en asuntos gubernativos: ó que las tres Provincias intentan formar una especie de unión, ó digamos liga defensiva separada de lo restante del Reyno. Nada de esto se infiere de los Estatutos ni S. E. por sí repararía en estas miserias; pero sabe que se nos mira con emulación, y quiere no haya el mas leve pretexto para censurarnos»<sup>55</sup>. Beste alde batetik, 1789 eta 1793 urteen arteko garaian José de Cadalsok (Madrilgo *Correo* aldizkarian ateratako “Cartas Marruecas” idazkietan) emigratioaren arazoa

<sup>50</sup> ANGULO MORALES, Alberto, *De Cameros ...*, *op. cit.*

<sup>51</sup> (A)giritegi (Z)abala. Dokumentu 254-13. zk. Guk egin dugu azpimarratzea.

<sup>52</sup> *Ibidem.*

<sup>53</sup> AZ. Dokumentu 254.15. zk. 1772ko maiatzaren 29an.

<sup>54</sup> AZ. Dokumentu 317-28. zk. (1767an).

<sup>55</sup> (A)rabako (L)urralde (H)istorikoaren (A)giritegia. Prestamero Fondo. 35. kutxa 40. zk. San Ildefonso. 1772ko irailaren 24a. Guk egin dugu azpimarratzea. ANGULO MORALES, Alberto, *Eugenio de Llaguno ...*, *op. cit.*, 71.-98. or.

azaltzeko pobreziaren argudioa erabiltzen jarraitzen zuen, XVI. mendetik aldundiek azpimarratu ohi zuten bezala. Berak zioenez, Euskal Herriko populazioak beherakada gogorrik ez zuen jasaten, «aun con las continuas colonias que envía a la América»<sup>56</sup>. Egile horren jatorria bizkaitarra zen. Berak hurrengo aipatzen zuen: «Tienen entre sí tal unión que la mayor recomendación que puede tener uno para con otro es el mero hecho de ser vizcaíno, sin más diferencia entre varios de ellos para alcanzar el favor de poderoso que la mayor o menor intermediación de los lugares respectivos. El Señorío de Vizcaya, Guipúzcoa, Álava y el Reino de Navarra tienen tal pacto entre sí que algunos llaman a estos países las provincias unidas de España»<sup>57</sup>.

Bi kasu hauek argi eta garbi erakusten digute nola ulertu eta ikusia izan zen emigratzaile euskaldunaren irudia XVIII. mendearen bigarren zatian. Elkartasun publiko eta pribatu horrek azaleratzen zituen irudia eta sentimenduak kontrajarriak ziren. Azken finean, deuseztatzen ari zen Inperio honetaz etekinak ateratzeko lehian emigratzaile euskaldunek lorturiko kokapena oso berezia zen. Gainera, atzealdean zegoen Euskal Herriko aldundien eta agintarien laguntza eta, askoz gehiago, Madrileko San Ignazioren Erret Anaidiak eskainitako babesa gero eta arriskutsuagotzat hartu izan zen.

XIX. mendearen hasieran, Juan Antonio de Zamacolak XVI. mendetik sorturiko argudio batzuk errepikatzen jarraitu zuen: «Se aman los Bizcaynos y los otros Bascos con una afición extremada adonde quiera que la fortuna los conduzca, y se ligan tan estrechamente entre sí para socorrerse unos a otros, que más parecen individuos de una sola familia, que naturales de una provincia. Particularmente se ve esta virtud en grado superior entre los Bizcaynos que han marchado a las diferentes regiones de América, y que todavía conservan el uso de la lengua Bascongada: entre ellos se juntan, y como están formados con unas mismas máximas de educación y virtud, no pueden estar jamás sin que los una aquel amor fraternal, que enlazó sus corazones en la juventud»<sup>58</sup>. Zamacolak aipaturiko elkartasuna —anaien arteko amodioa— inoiz ez zen izan produktu natural bat. Madrileko Anaidiak eta Ameriketako kofradiek iraupen handiko prozesu kultural hutsa izan zela erakusten digute.

1635eko uztailan Limako “Ilustre Hermandad de Nuestra Señora de Aranzazu” elkartearen konstituzioak onartzeko prozesuan bere helburu nagusiak proklamatzeko zituzten honela: «El fin desta Hermandad y congregacion (..) es Unirse y confederarse (..) en horden a exerçitar entre si y con los de su nacion obras de misericordia y caridad christiana asi en vida como en muerte (..): visitar a los enfermos pobres que Ubiere (..) orixinarios de las Prouincias [vascas] (..) visitar las carzeles a ber si ay en ellas alguna o algunas personas (..) de las dhas prouincias presas (..) defendiendolas y haciendo sus causas hasta liberarlas (..) procurar saber de los recién llegados de las naciones de dha hermandad, especialmente los que tubieren o Ubieren tenido parientes zercanos en ella, y acomodarlos lo mejr que se pudiere en esta ciudad o abiarlos para fuera della»<sup>59</sup>. XVII. mendean sorturiko helburu orokor horrek aparteko aldaketak izan zituen 1700. urtetik aurrera dinastia berri bat Espainiako tronora heldu zen bezain laster eta, garai hartarako emigratzaile euskaldunak oso ondo prestatuak zeudela ez dugu ahaztu behar.

---

<sup>56</sup> CADALSO, José de; *Cartas Marruecas*, Madril, Clásicos Castellanos, 1963, 65. or.

<sup>57</sup> *Ibidem*.

<sup>58</sup> ZAMÁCOLA, Juan Antonio de; *Historia de las Naciones Bascas*, Auch, Imprenta de la Viuda de Duprat, 1818, 55. or.

<sup>59</sup> LOHMAN VILLENA, Guillermo; «La Ilustre Hermandad de Nuestra Señora de Aránzazu de Lima», in Ignacio ARANA PÉREZ (Arg.), *Los Vascos y América*, Madrid, Espasa-Calpe/Argantonio, 1990, 206.-207. or.